FORU PLAZA

B4

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia: Foruen omenez ipini jakon izen hau udaletxe aurrean dagoan plazeari.

Muga geografikoak

Iparraldean udaletxea, hegoaldean Bakearen Museoa, ekialdera Artekalea eta mendebaldera Azokakalea.

Ezaugarri historikoak

Aisialdirako, batzarretarako, merkaturako, edota Erdi Aroan ohikoa zanez, gaizkileak jente aurrean agertzeko esparru publikoa zan plaza edo "plaza" hau, eta holaxe egoan onartuta Foruan. Bizkaiko eleizateetan, eleizearen aurrean egozan batez be halako tokiak. Urietan, barriz, Gernika zan lez, udaletxearen aurrean. Plaza honek Gernikako portu zaharraren ditxoan dauka bere jatorria seguruenik. "Enparantza" moduan agertzen da daborduko 1366ko lehenengo uriguneko etxe zerrenda baten.

XIX. mendean Foru plaza deitzen eutsien. 1937ra arte Azokakalea eta Andra Maria kaleen arteko lauki luze txiki bat baino ez zan, baina etxe batzuek (besteak beste Albiz Etxea edo "Casa del Puerto") itxi egiten eutsien Artekalerako bidea. 1786an etxegune honetako jaubeak akordu batera heldu ziran horma txiki bat botateko eta, holan, Artekalerako sarrera egiteko.

Edifizio aitagarriak

Udaletxea. Edifizio honen lehenengo datua 1545ekoa da. 1741ean barriro altzau zan eta, horretarako, 1743tik aurrera harlandua erabili zan. Napoleonen inbasinoan hondatu egin eben edifizioa 1813ko apirilaren 2an, hain zuzen be. 1815-16 urteen artean eta Foru Aldundiari esker, Juan Bautista Belauzaranen proiektu bati jarraituta eregi zan ostera be. Edifizio honek, beste askoren moduan, 1937ko bonbardaketara arte iraun eban. Gaur egunekoa "Regiones Devastadas" erakundeak herria barriro be altzetako egin ebazan proiektuetan sartu zan eta arkitektoa Manuel Smith izan zan. 1942ko abuztuaren 18an inaugurau zan. Aurrealdean San Rokeren, herriko patroiaren, irudi bat dago, antza danez Amador Lucarinik (1907-1971) eginikoa. Lucarini gerra ostean gure herrira lanean ekarri eben gerrako presoa zan, hau da, preso politikoakaz osotutako langile-bataloietako kidea.

Enparantza. Manuel Smithek egindako planoakaz eta "Regiones Devastadas" erakundeak beharrak zuzenduta egin zan plaza hau, Gaztelako enparantzen itxureari jarraituta: plaza zabala, inguruan arkupeak dauzala eta erdialdean puntan kurutzea dauen zutabe bat. Zutabe hori 1966ra arte mantendu eben, baina uriaren fundazinoaren 600. urteurrena ospatzeko, kendu egin eben eta haren ordez Bizkaiko Jaurerriko Kontea eta Gernikako sortzaile izan zan Trastamarako Don Telloren estatua jarri.

Don Telloren eskulturea. 1966ko apirilaren 20an inaugurau zan. Egilea Agustin de la Herran izan zan. Brontzezkoa da eta Don Tello ezkerreko eskuan Urigutuna eta eskoian ezpata dauela agertzen da. Ezpata honek indarra egiten dau behearen kontra eta horregaitik dago okertuta, holan kementsuagoa dirudi.

Bakearen Museoa. Gerra osteko edifizioa, plazan dagozan gainerako edifizioen estilo berekoa da. Urteetan Epaitegi eta Posta eta Telegrafoen egoitza izan da, 1995era arte. Urte horretan museo bihurtu eben.

A3

B3

FRAY MARTIN DE MURUA KALEA

Izenaren jatorria

Martin de Murua (1580-1651), Gernikako semea, Mertzedeko ordenako fraile egin zan eta misiolari lez igaro eban bizitzea Peruko Iurraldeetan. 1600ean Cuzco eta Arequipara joan zan.

1611n Historia de los Incas del Perú liburua idatzi eban eta horri esker ezaguna egin zan. Bertako indiarren jantzien eta armen irudi ederrez apaindutako lan bikaina dogu eta eskuidatzi hori 1962an argitaratu eban Madrilen Manuel Ballesteros historiagileak, Historia General del Perú, origen y descendencia de los Incas izenburuagaz. Gaur dakigunez, gitxienez eskuidatzi bi egin zituan misiolariak: bata, Wellingtonena, duke honen eskuetan egoalako, osoena eta Manuel Ballesterosek argitaratu dauena da; eta bestea, Loyola eskuidatzia, bertako jesuiten artxiboan kontserbau dan kopia baten bitartez ezagutzen dana. Azken hau lehenengoa idazteko oinarri moduan erabiliko zan. Juan M. Ossio historiagileak bigarren eskuidatzi honen originala topau eban 1977an eta lehenengoak baino askozaz ilustrazino gehiago ebazala konprobau eban.

Peruko misiolari ospetsuenetarikotzat hartu da eta (txarto esaka eta ekiten ibili diranak be izan ditu, dana esan behar da) Titicaca lakuaren inguruko Iurraldeetan egin eban lana, hizkuntza natibo gatxenetarikoa -aymara- eukien indiarren artean.

Muga geografikoak

Fray Martin de Murua kalea Saraspeko plazan hasten da eta, Mestikabaso eta Zearreta kaleen bitartetik, Gernikatik Errigoitirantzako bideari jarraitzen deutso.

Ezaugarri historikoak

Kale erresidentziala da, aparteko komertzio ez zerbitzurik bakoa. Lehenengo zatiak orain arte Santa Klarako komentuaren soloakaz egiten izan dau mugea; gaur egun tarte horretan etxe barriak egiten dabilzanez, aurrerantzean Karmelo Etxegarai kaleagaz lotuko dauen bide bat egingo da Enrique Amurrio kaletik.

Kaletik beherantz sartuta, kale honetara begira dagoan auzune baten, Iturriondo plaza dogu. Etxeen artean gelditzen dan tartetxu baten plaza txiki bat egin eta antxinatik bertan egoan iturria barriro ipini da eta, bide batez, ingurua urbanizau eta txukundu. Jatorrizko iturri zaharra Mestika errekearen iturburuetariko bat zan.

Edifizio aitagarriak

Josefinen erresidentzia. 1932an egina, gerra denporan ospitalea izan zan. Gero, nesken eskola izatetik nagusien erresidentzia izatera pasau zan. Gaur egun, euren ordenako monjen erresidentzia da.

Zalloko Kanposantua. Kale honen eta urigunearen amaieran dago, baina uritik kanpo egoteari laster itxiko deutso, izan be, gaur egun ingurua auzotegi barriz beteten dago. Kanposantu hau 1895ean egin zan, Saraspe inguruan egoan kanposantu zaharra herritik atera gura izan zanean. Dakigunez, 1924an oraindino batetik bestera panteoiak eroaten ibili ziran.

A5

A6

GALTZADA

Ezaugarri historikoak

Bilbotik Bermeorako Erret Bidea, Zin Bidea deitutakoa, interes historiko handikoa zan, bertako leku batzuetan eta Zin eleizetan Bizkaiko jaunek Foruei zin egin behar izaten eutsie-neta.

Lehenengo zina Bilboko ateetan zan, eta handik Larrabetzuko Emeterio eta Zeledon Santuen eleizara joaten ziran. Zin egin ondoren, Gernikara heldu eta Gernikako arbolaren aurreko Antiguako Andra Mariaren Baseleizan barriro egiten zan erritoa. Gernikatik Bermeorantza jarraitzen eben eta Zin Bidea bertan amaitzen zan.

Esan behar da galtzada hau Zin Bidea ezeze, Gaztela eta Bizkaiko Buru eta Kantauriko itsasoko portu inportantearen arteko komunikabide nagusia be bazala, hau da, Gaztela Bermeogaz lotzen eban bidea.

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (toponimia): Antxinako "Camino Real"aren itzulpena. Erdi Aroan erabilten zan bidea.

Muga geografikoak

Izatez ezin dogu esan kalea danik, bide estua baino. Hasieran, hegoaldetik, Pedro de Elejalde kaleagaz nahasten da eta Santa Ana auzoaren atzetik jarraitzen dau Carlos Gangoiti kalean amaitzeko.

Edifizio aitagarriak

Galtzadaren eskoiko aldean (Pedro de Elejalde kaletik abiatuta) **Santa Ana baseleizea** dogu, 1461ean Pedro Ibañez de Urdaibairen agindupean egina. Gitxi gorabehera XX. mendearen erdira arte garagarrilaren 25 eta 26an, Santiago eta Santa Anako jaietan, jentea oraindino joaten zan bertara santuak gurtzen.

Gaur egun alde batera itxita dago alperrik galtzen.

GOIENKALEA

B4

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (toponimoa):
Herriko goiko aldeko kalea.

Muga geografikoak

Iparraldetik San Juan kalea (antxinako "calle del Norte") dau, hegoaldetik Adolfo Urioste kalea (antxina "calle Hospital"), eta Andra Maria kaleak (antxinako "calle Travesera") erditik kurutzatzen dau.

Ezaugarri historikoak

Kale honi buruzko lehenengo datu historikoa "Foguera-Vecindario de las villas de Vizcaya del año 1511" agirian daukagu eta bertan Somera izenagaz aitatzen da. Kale honen izenak (Erdi Aroko uriguneko beste lauren moduan) inguruko topografiak marketan dauen mailaketan eta Kosnoaga mendiak emoten deutsan berezko egituran dauka jatorria.

Uria maldan gora egikeran, kaleak errekearen ibilguari paraleloak dira. Kale hau da goien dagoana; halanda ze, bai etimologiari baita geografiari jagokonez be, kalearen izena bat dator bere esangureagaz. 148 m zituan luzetara eta 6 m zabaletara. Erromatarren antxinako neurrian 100 urrats (pes Aebutianus, 1,48m.).

1521eko zemendiaren 29an kale honetako Juan de Ortiz de Zabalaren etxean sute ikaragarria izan zan eta kaleko hegoalde eta mendebaldeko etxebizitza guztiak erre egin ziran. Goienkalea, Azokakalea, "Portal del Angel" eta Adolfo Uriosteren arteko eremuan etxebizitza gehienak egurrezkoak ziranez, guztia sutauts bihurtu zan.

Historian zehar kale honi Somera, Iusera, Goyena, Primera, De Arriba, Cimera eta Goienkale deitu deutsie. Erdi Aroan, kale honetan egoan Bizkaiko Jaurreriko kartzelea.

Hurrengo datu hau be bitxia da: 1937ko bonbardaketan ekialdeko etxeak hondatu egin ziran, eta mendebaldekoek, ostera, ez eben ezelako kalterik izan.

Edifizio aitagarriak

Andra Maria eleizea. Uribildutik kanpo egina, ekialdetik kale honetara begira dago.

Kanposantua. 1787a ezkeroztik, eta batez be 1804a ezkeroztik, osasuna zala-eta, Andra Maria eleizan egoan Gernikako kanposantua, kanpora atera eben elizearen hego-ekialdeko hegalera, gaur egun sakristia dagoan lekura. Hilerri honetara 1850era arte eroan ebezan gorpuak, Saraspekoa egin zan arte.

Arizetxea, Ariz torretxea. Kale honetako ekialdeko hegalaren eta Andra Mariren artean egoan. Badira bertan armarri bat eta arkudun atari bat. Biak antxinako edifizio baten azken lekukoak.

Ibarguen torretxea. Kalearen ekialdean egoan torretxe hau, Adolfo Urioste kaleagaz bat egiten. 1648an ugazabak eta ugazabandreak, Busturiko Juanek eta Isabelek emon egin eben orube eta edifizio hau, bertan "El hospital de la Soledad" ipinteko. Ospitale hori 3 mendean egon zan martxan. 1718ko matxinadan eraso egin eutsien eta sarraskia nahiko handia izan zan. Bertan Alegria Jauregiaren agiriak gordeten ziran. Jauregi hori Juan Antonio Meabe y Albiz Ahaide Nagusia eta jauntxoarena zan.

Lehenengo Karlistadan, 1835eko maiatzean, sua emon eutsien eta guztiz hondatu zan. 1847-1850 urteen bitartean barriro eregi zan, Antonio Gandarias maisu gernikarrak eginiko planoen arabera. 1870ean "Casa de Misericordia y Hospital Municipal" moduan atondu zan, harik eta Calzada Egoitza egin eta itxi zan arte. Bere lekuan etxe barria egin zan: "Taberna Vasca" jatetxe ospetsua. Hasiera baten Pedro Arrienen zuzendaritzapean eta gero haren seme Juanitoren esku geratu zan jatetxe hori. Gaur egun etxea itxita dago.

Gizarte Etxea. Gernikarren artean batutako diruagaz egin zan. 1959an eta 1960ko abuztuaren 15ean amaitu ziran obrak. Gizarte Etxe honek arlo sozialeko hainbat egintza eta lan beteteko lokalak eukazan: parrokiaren betebeharrak eta eleizeagaz zer ikusia eukan jentearen ekimen asko (ikastaroak, katekesiak, Aste Santuko Prozesinoen irudiak gordeteko lekua...); jolasteko aretoak; taberna eder bat; eta abar. 60ko hamarkadan lagun eta familia giroko gune edo erreferentzia bihurtu zan gernikarrentzat.

Goiko solairuan zinema bat izan zan. Zine komertziala proiektatzeaz gainera, Zine Klubaren emanaldiek be izan eben euren txokotxua. Seber Altube Ikastola bertan sortu zan eta bertan izan ebazan lehenengo ikasgelak eta egoitza. Euskereari jagokonez, Gizarte Etxean izan ziran lehenengoetariko euskera ikastaroak, Labayru Ikastegiaren eskutik.

Gerora eleizbarrutia arduratu zan etxe honezaz eta eurena zanez, 1998an bota egin zan orubean etxebizitzak egiteko. Zoritxarrez edifizio barriari emon deutsien altureagaz Andra Maria eleizea ez da lehengo moduan ikusiko, etxe atzean tapauta geratuko da-eta.

Elai-Alai parkea. Parke hau etxe zahar batzuk eta antxinako nesken eskola izaneko orubean dago. Orubea garbitu eta antolatu ondoren parke bihurtu zan, eta udalak Monseñor de Iturraran izena ipini eutsan, Andra Maria eleizako artzipreste ezaguna izan zanaren omenez. Geroxeago izena aldatu eta Elai-Alai parkea da gaur egun, sasoi baten bertako edifizio baten euki ebalako dantza taldearen sortzailea izan zan Segundo Olaetak bere akademia. Parkepean Elai-Alai Aretoa daukagu.

Allendesalazar liburutegia. Kalearen ekialdeko hegalean Andra Maria kaleagaz bat egiten dauen lekuan dago. "Regiones Devastadas" gobernu erakundeak egina, bonbardaketa ondoren herria barriro kopontzeko egin ziran beharretariko bat dogu. Udal liburutegia izan zan 1970era arte. Erakunde batzuek eta kultur taldeek bertan izan dabe egoitza (Gernikazarra, Gernika Gogoratuz eta, gaur egun, Andra Maria Korala).

Bonbardaketa baino lehen leku berean izan zan "San Martín Alberdi y Cia" pistola lantegia (1922 eta 1925 urteen artean "Alkar" pistola fabrikau eben bertan).

Marijesiak plaza. Inguru honetan egon zan Erdi Aroan eregitako Jaurrerriko kartzelea, bonbardaketan suntsitu zana. Bertan, hondatutako hormen artean altzau zan Fidelen Gaseosa fabrika. Plaza honetan zuhaitz eder bi ikusi daitekez. Itzelezko tilo bi honeek bonbardaketaren aurretik Jose Lopez de la Calleren etxeko lorategikoak ziran. Etxe honen orubea luzaroan "Campo de fútbol de los Hermanos" deitzen zan jolastoki bihurtu zan eta gaur egun etxez bete dabe leku hau.